



## ❖ SAN JOAN KONPARTSA San Joanetako karroza prestatzeko laguntza

San Joan Konpartsak Oialume dantzalekua aukeratu du aurtengo San Joanetako karrozarako gaitzat eta gaia aurrera ateratzen lagundu nahi dutenei dei egin die; hau da, informazioa, argazkiak edo anekdotak bidaltzeko. Otsailaren 2an, asteartean bilduko dira Biterin, 19:00etan. ||

## ❖ 'ADIERAZI' EKITALDIA 'Eskubide Politiko eta Zibilen aldeko' ekitaldira joateko autobusa Hernanin

Larunbatean, Adierazi izeneko ekitaldia izango da Bilboko Euskalduna jauregian, Eskubide Politiko eta Zibilen alde. Hernanitik autobusa jarri da eta joan nahi duenak izena eman behar du Garinen. Irteera 16:00etan izango da eta ekitaldia 18:00etan. ||

## ❖ KAROBIETA ELKARTEA Barrikotean izena emateko azken eguna igandean bazkideentzat

Otsailaren 12an, barrikotea izango da Karobi elkartearen eta izena emateko epea zabalik dago bazkideentzat. Igandean amaituko da. Astelehenetik aurrera, gainerakoek izango dute aukera izena emateko. ||

## ◆ MENDIRIZ MENDI Asteburuan eskia- tzera joateko izen eman nahi duenak azken eguna bihar

Mendiriz Mendik antolatuta, eskiatzera joango dira asteburu pasa Cauterets-era, eta izena emateko bihar izango da azken eguna. Bulegotik pasa behar da (Iturregi plaza z/g) 20:00etatik 21:00etara. Larunbatean aterako dira 05:30etan, Atsegindegitik. ||

## Hernaniri buruzko bideo turistikoa ikusgai izango da astelehenean

Bideoaren bidez, udalerrira hobeto ezagutzeko aukera izango da: historia, ondarea, tradizioa, kultura eta natura, besteak beste. Iaz grabatutako irudiak ikusiko dira.

OTSAILAREN 1ean, hau da, datorren astelehenean, Hernaniren inguruko bideo turistikoa emango da Udalak antolatuta. Biterin izango da arratsaldeko 19:00etan. Aipatutako bideoa Euskal Herriko hainbat herriri buruzko dokumental sorta baten parte da. Dokumental sailak *Barne barnetik* du izena eta bideo dokumental bakoitzak herri bat aurkezten du. Grabaketaz arduratu da Galdare ikusentzunezko komunikazio enpresa. Joan den urrian bukatu zituen Hernaniri buruzko grabaketak.

### Udalerria hobeto ezagutzeko aukera

Bideoak 30 minutuko iraupena du eta 2009an zehar grabatutako irudiak ikusiko dira. Udalerria hobeto ezagutzeko aukera izango da: historia, ondarea, tradizioa, kultura eta natura, besteak beste. Kaxkoan dauden eraikin



San Joanetako irudiak bildu dira, besteak beste, bideoan.

esanguratsuenak azaltzen dira, hala nola, udaletxea, eliza, jauregiak... Chillida Leku eta Nere Borda parke botanikoa gune naturalak ere

ageri dira. Eta festak ere presente daude: San Joanak eta Txalaparta festa, esaterako.

Bideoa bost hizkuntzatan argitaratu da: euskaraz, gaz-

telaniaz, ingelesez, frantsez eta katalanez. Eta salgai egongo da, 8 euroan, Hernaniko hainbat liburutandatan. ||

## ❖ AEK HERNANI-ASTIGARRAGA ETA ZILEGI ESKOLA

## Zubieta eta Iturengo inauterietara irteera

Horrez gain, urte osoko soldata baten zozketan parte hartzeko errifak daude salgai eta baita Mikel Laboaren omenez egindako kontzertuaren DVDa ere.

HERNANIKO eta Astigarragako AEKk, Zilegi Eskolarekin elkarlanean, Ituren eta Zubieta inauterietara irteera antolatu du. Otsailaren 2an, asteartean izango da. Iaz ere izan ziren bertan euskaltegiko ikasle, irakasle eta hainbat herritar eta antolatzaileek azaldu dutenez, primeran

pasa zuten eta aurten ere txangoa antolatzea erabaki dute.

Informazio gehiago nahi izanez gero edota izena emateko ondorengo telefonoetara deitu behar da: 607 592 864 (Hernani), edo 943 557 354 (Astigarraga). Edo mezu bat bidali helbide hauetakoren batera: [zilegieskola@aeknet.net](mailto:zilegieskola@aeknet.net),

[hernani@aek.org](mailto:hernani@aek.org) edo [astigarraga@aek.org](mailto:astigarraga@aek.org).

### Urte osoko soldata baten zozketa

AEKk urte osoko soldata baten zozketan parte hartzeko errifak salgai jarri ditu. Otsailaren 26ko ONCEko zozketan aterako da saria eta irabazleak 1000

euroko soldata jasoko du hileror urtebetez. Euskaltegian bertan eta Hernani eta Astigarragako hainbat tabernatan erosi daitezke 2 euroan.

Horrez gain, Mikel Laboaren omenez iaz Hernaniko hainbat musikaririk egindako kontzertuaren DVDa salgai dago 10 euroan. ||

### IRRIGOENEA OKINDEGIA

EGUNEROKO OGI BEROA

GAZTELOKO PASTELAK eta TARTAK ENKARGUZ  
OPIL ETA PASTA BIKAINAK

sulabe

BARIETATE HAUNDIA INTEGRALETAN:

OJALDREZKO PALMERAK  
KURASAN ZEREALDUNA  
MADALENAK  
OGI INTEGRAL HAZIDUNA

ETA ASKOZ GEHIAGO !!

Lizeaga I (Portalez kanpo) telf. 943 33 17 25  
HERNANI

### ezkati

ileapaindegia

Iturregi, 4  
Hernani  
943 55 65 56  
Hartu ordua

### TITAN-ETXE

TABERNA

ASTEBURUETAN AFARIAK

Larramendi, 15  
Tel.: 943 55 00 46

**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● **Egunez**: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Hotz egingo du eta elurra 200-300 metro inguruan izango da, baina prezipitazio gutxi espero da. Ipar-ekialdeko haize fina ibiliko da. Izotz galanta botako du. Min.0° / Max.4°  
**BIHAR** Fronte batek euria ekarriko du eguerditik aurrera. Tenperatura zertxobait igoko da eta elur-maila 700-900 m inguruan kokatuko da. Min.-1° / Max.9° (euskaime)

## ❖ GATZA AUZIA - BOST EUSKAL HERRITARREN AURKAKO EPAIKETA

# «Ez gara epaiketara joango, ez behintzat gure borondatez»

'Gatza auziko' epaiketa gaur hasiko da eta bi auzipetuk, Jon Enparantzak eta Estanis Etxaburuk, atzo prentsaurrean azaldu zuten Entzutegi Nazionalak ez duela zilegitasunik euskal herritarrek epaitzeko, «eta ez diogu zilegitasunik emango».

GAUR bost euskal herritarren aurkako epaiketa hasiko da Entzutegi Nazionalan, *Gatza auzia* dela eta. Auzipetuak dira Arnaldo Otegi, Itziar Galardi, Josune Irakulis, Jon Enparantza eta Estanis Etxaburu. Azken biek prentsaurrekoa eman zuten atzo Biterin, *Gatza* ezagutu duten zenbait preso ohiek babestuta, eta azaldu zuten Entzutegi Nazionalak ez duela zilegitasunik euskal herritarrek epaitzeko eta beraiek ez diotela zilegitasunik eman nahi. «Ez diogu gure ibilbide politiko eta publikoko azalpenik zor. Horregatik ez gara joango, ez behintzat gure borondatez. Eraman egin beharko gaituzte».



Estanis Etxaburu eta Jon Enparantza, preso ohiekin, atzo Biterin.

### «Gizartearen gehiengoak hala pentsatzen du»

Entzutegi Nazionalaren zilegitasun eza arrazoitzeko honakoa esan zuten: «Euskal Herriaren askatasun eta demokrazia lortzeko nahia oztopatzeko tresna errepresibo nagusienetakoa da, euskal herritar independentisten persekuzio konstantea suposatzen du, eskubide zibil eta politikoen garapena delitu bilakatu du, eztabaida eta ekimen politiko ororen

zapaltzailea da; adibideak: azken sarekadak, bai gazteen aurka eta bai ezker abertzaleko kideen aurka; tortura erabiltzen du...». Horrez gain, preso en egoera, senideen elkartasuna «kriminalizatzea» eta hainbat auzi, hala nola 18/98, Jarrai-Haika-Segi eta Egunkaria izan zituzten gogoan.

Eta gaineratu zuten ez dela euren gogoeta bakarrik. «Entzutegi Nazionalaren aurkako jarrera argi ikusi da euskal gizartearen aldetik eta esan dezakegu gehiengoak hala pentsatzen duela».

### Zornotzako ekitaldian parte hartzeagatik

Auzia 2005ean zabaldu zen. Jose Mari Sagardui *Gatzaren* espetxealdiaren 25garren urteurrena zela eta, ekitaldia egin zen Zornotzan. Bertan parte hartu zuten aipatutako bost auzipetuek eta leporatzen zaie: terrorismoari gorazarre egitea eta lege kanpo biltzea. Akusazioak *Dignidad y Justicia* eta *Foro de Ermuak* eginak dira eta 15 hilabete eta 4-5 urte bitarteko zigor eskaerak egin dituzte. Ostiralera arte luzatuko da epaiketa. ||

### ◆ FUTBOLA

#### Jubenilak Sestaoren aurka gaur

Urtarrilaren 9an jokatu behar zen Liga Nazionalako jubenilen partidua, bertan behera geratu zen elurrarengatik, eta gaur jokatu da. Zubipen izango da 20:00etan eta Hernanik Sestao River izango du aurrez aurre. ||

### ◆ PELOTA

#### Trinketeko finaletan hernaniarrak ez

Joan den asteburuan bi final eta bi semifinal jokatu dira. Paleta nesketan Irazustabarrena eta Ugalde Euskal Herriko txapeldun dira Amurriori 30-29 irabazita, eta Tijero eta Zabala Gipuzkoako azpitxapeldun, bigarren mailan, Suberriren aurka 30-14 galduta. Semifinalak trinketean izan ziren eta aspaldiko partez,

Hernaniko pelotaririk ez da iritsi finala jokatzera. Altunak 30-16 galdu zuten Oiarperen aurka eta Otaegik 40-24 Loiolatarrak aurka. ||

### ◆ XAKEA

#### Emaitza gazi-gozaok asteburuan

Hernani A taldeak Fortunaren aurka 3,5 -0,5 irabazi zuen. Hernani B-k berriz, 1,5-2,5 galdu zuen Billabonaren aurka. ||

### ◆ BOLEIBOLA

#### Saiatu arren, garaipenik ez

Senior neskek Galdakaoren aurka jokatu zuten igandean eta joko txarra egin ez arren, bizkaitarrak nagusi izan ziren 0-3 emaitzarekin. Mutilak ere Lankide Arambizkarra taldearen atzetik ibili ziren. 2-2ko berdinketa lortu zuten, baina azken SET-a eta partidua gasteiztarrentzat izan zen. ||

## Atez ateko zalantzak argitzen

Gaizki egiten duenari isuna jarriko zaio?

Hasieran, ez. Lehenengo herritarrek sistema ondo ulertu behar dute. Arazoa behin eta berriz errepikatzen denean jarriko da isuna.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Pisua salgai Karabelen.** 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

**Pianoa salgai.** Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

**Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai** estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m2, 3 logela, 2 komun, sukaldea (osagai guztiak) eta igogailua. 442.000€. Deitu: 656 316 031.

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

**Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## Hernaniko Udala

**DEKRETUA.** - Hernanin bi mila eta hamarrek urtarrilaren zortzian.

Tokiko Gobernu Batzarrek 2008ko abuztuaren 17an hartutako erabaki bidez Ereñotzu eta Fagollaga arteko oinezkoentzako bidea egokitzeko proiektua onartu zen. Proiektu hori Igor Erbiti Saizar mendiri ingeniariari eta Xavier Erbiti Saizar mendiri ingeniari teknikoak prestatu zuten (LUR GEROA SL).

Proiektuan jasotakoa garatzen aldera, eta legez egin beharreko atze-aurreak egin ondoren, egitasmo horretan jasota datorren "Ondasun eta Eskubideen Zerrenda" behin betiko onartu da, Alkatetzak 2010eko urtarrilaren 8an emandako dekretu bidez.

Horiek guztiak horrela, eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

### ERABAKI DUT,

Titular guztiei dei egitea 1. eranskinean adierazitako egunean eta orduan Hernaniko Udalera etor daitezten, eragindako lurren okupazioaren alde zuzeneko aktak egiteko eta, hala badagokio, lur horiek okupatzeko.

Ekitaldi horretara eragindakoak pertsonalki agertu beharko dute, edo beren ordeztar diren pertsonak, behar bezala baimendurik. Beren titulartasuna frogatzen duten agiriak eraman beharko dituzte (jabetza Erregistroaren eskriturak, egiaztagirak edo informazio oharrak). Nahi izanez gero, beraien konturako aditu edo notario batekin ere ager daitezke.

Bestalde, jabetza nahitaez kentzeari buruzko erregelamenduaren 56.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, interesatuek eta, horiez gain, ondasun errealeko interes ekonomikoaren titular izan arren honekin batera doan zerrendan agertzen ez diren pertsonak, nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Hernaniko Udalari, ondasun eta eskubideak zerrendatzerakoan akatsik egin baldin bada haiek konpontzeko. Alegazioak idatziz egin behar dira, alde zuzeneko aktak egiteko egunera arte.

### I ERANSKINA

21 zenb. Finka :

*Titularra:* Mertxe Etxeberria Aramburu eta beste bat.

*Helbidea:* Larramendi, 9-4. esk.- 20120 Hernani

*Katastroko erreferentziak eta errezibo zenbakiak:*

landa-lurra, 5 poligonoa, 003 lursaila

*Hirigintza sailkapena:* lurzoruz ez-hiritargarria.

*Eragindako azalera guztira:* 133 m2

*Mugak:* iparraldean eta hegoaldean, jatorrizko finkaren gainerako zatia;

ekialdean, Garmendia anai-arrebak eta mendebaldean, Juan Goicoechea.

*Kargak:* libre

**Lekua:** Hernaniko Hirigintza saila (Gudarien plaza 1, 4. solairua; 20120 Hernani)

**Eguna:** 2010eko otsailaren 4a **Ordua:** 09:00etan

Marian Beitia-larrangoitia Lizarralde alkate andreak agindu eta sinatzen du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.-